



Liburutegi Nagusia Alderdi Eder

2023ko ekainaren 6a

<http://www.donostiakultura.com/liburutegiak/>

Sherwood Anderson

(Camden, Ohio, 1876 - Colón, Panamá, 1941)

Nekazari familia batean hazi zen eta eskola 14 urterekin utzi zuen. Hurrengo urteetan hainbat lanbidetan aritu zen lanean. Ondoren, soldadu izan zen Kubako Gerran.

Literaturari ekiteko asmoz, Chicagora joan zen bizitzera, eta han eleberriak eta poemak idazten hasi zen. Bere lanak Theodore Dreiser, Carl Sandburg eta Ben Hechten estimua lortu zuen, besteak beste.

Bere libururik goraiatuenerako bat **Winesburg, Ohio** da, kritikari askok XX. mendeko ingelesezko libururik onenetakoa dela uste dutena. Azterketa psikologikoaren eta soziologikoaren arteko erdibidean, bizimodu berrietara egokitzeko gai ez den landa-komunitate txiki bateko biztanleen frustrazioak deskribatzen ditu.

Peritonitisak jota hil zen, infekzioa eragin zion zotz bat irensteagatik. Bere lan asko Panaman hil ondoren argitaratu ziren.

Winesburg, Ohio



Zenbat balio dute asmatu harrizko nekazari eta langileen ametek? Sinesten ahalko dugu guk ere haiekin, inoiz landa utzi eta hirira joanen garela eskapu? Haien eskuen keinuak behatu ahalko ditugu? Herriko Kale Nagusian igande goizez gora eta behera ibili? Desira dugun harekin paseoan atera iluntzean, baso aldera etzan eta elkarri musu emateko?

Amerikako Estatu Batuetako Ohion kokatzen du Sherwood Andersonen Winesburg herrixka. Hogeita bat istorio laburretan aletzen ditu bertako biztanleen nahi eta ezinak, elkar korapilaturiko bizitzak, XIX. mendeko Ipar Amerikako landa aldeko memoria

emozional bat osatzeraino, industrializazioaren ufada gotorrak betirako desagerrarazi baino lehen.

Sherwood Andersonen zenbait argitalpen

Winesburg, Ohio (1919) **N AND**

Poor White (1920)

Many Marriages (1923)

Death in the Woods and Other Stories (1933)

Kritikak esandakoak

“...Andersonen lana hainbat alderditatik iruditu zait interesgarria: batetik, genero literario bezala, erronka bat delako literatur sistema osoarentzat. Askok nobela bezala definitu dute; beste hainbatek, ordea, ipuin-liburu bezala. Izan ere, bi aldeek dute arrazoia, obrak bateko eta besteko ezaugarriak baititu: begiratu huts-hutsean irakurleak 22 kontakizun buruaski aurkituko ditu konposizioan, hortaz, fisikoki ipuin-liburuaren itxurako lana da. Irakurtzerakoan, ostera, aise ohartuko gara euren artean lotuta daudela guzti-guztiak, eta Winesburg bera da lotura figura nagusia. Badira, hala ere, lotura sendoagoa eraikitzeko balio dituzten hariak; esate baterako, George Willard pertsonaia, idazlearen beraren alter egoa izan daitekeena, hain zuzen. Guztiek ere, independenteak izan arren, ipuinek eraikitzen duten unitate literarioa baino askoz zabalagoa den unibertsora garamatzate, nobelatik oso hurbilekora, bain, azken horien lausotasunera iritsi gabe. Ez bata, ez bestea, baina biak aldi berean, alegia, tradizio anglosaxoian *short story cycle* deritzotena.

Bestetik, erreperitorioari ez ezik, literaturaren poetikei ere egiten die argi obrak; literatura ulertzeko eta sortzeko modu bat dakar, ikuspuntu zehatz bat, eta asko estimatu dudan alderdia izan da hori. Goian aipatu dudanez, 22 kontakizun daude guztira, bada, hobeto legoke esatea 21 eta erdi direla osotara, euretako bat, lehenengoa, fikzionalizatutako poetika bat baita. Bertan biltzen da idazleak obran zehar darabilen ikuspuntuaren azalpena eta asmoen adierazpena (justifikazio moduan edo?), ipuinaren izenburuak iragartzen duenez, Grotσκοen liburu baina *Winesburg, Ohio*. Ez ditu pertsonaien bizitzak diren-direnean ekartzen, ez dira erretratu errealistak, desitxuratuak baizik, sarritan irigarriak, beste hainbatetan are absurdoak ere. Iruditu zait lehen ipuinak baduela indarrik teorikoki, eta idazleak, gainera, jakin duela begirada grotesko hori praktikara eramaten...”

Nagore Fernandez / Berria, 2023-01-22

Erabilitako iturriak

Wikipedia

https://es.wikipedia.org/wiki/Sherwood_Anderson

Kritiken hemeroteka

<https://kritikak.armiarma.eus/?p=8709>

Erein

<https://www.erein.eus/libro/winesburg-ohio/eu>